

Azkeneko bi urteetan % 12 igo da sakelako telefonoa daukaten 10 eta 14 urte bitarteko umeen kopurua

10 eta 14 urte bitartekoen artean aipagarria da ordenagailuaren erabilera (% 81,9k erabiltzen dute); 16 eta 34 urte bitartekoen artean, ordea, sakelako telefonoa




Estatistikako Institutu Nazionalak burutu duen Informazio eta Komunikazio Teknologien Ekipamendu eta Erabilera Etxeetan inkestan aditzera ematen denez, Euskadiko 10etik 14 urtera bitarteko gero eta biztanle gehiagok erabiltzen dute ordenagailua. Joera gorakorra da baita sakelako telefonoa dutenen kopuruan ere.

% 81,9k ordenagailua erabili dute azken hiru hilabeteotan; % 72,5ek Internet erabiltzen dute; eta % 65,5ek sakelako telefonoa daukate.

2004 eta 2006 urteen artean lau aldiz egin da inkesta eta, epe horretan, agerikoa izan da sakelako telefonoaren erabilerak 10 eta 14 urte bitartekoen artean izan duen gorakada jarraitua.

Informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzen dituzten 10 eta 14 urte bitarteko umeak. Portzentajeak. EAE. 2004-2005-2006



Etxean ordenagailuari ematen dioten erabilerari dagokionez, % 91,4k eskolako lanak egiteko erabiltzen dute; % 82,2k aisiarako, musika entzuteko edo jokoetan aritzeko; eta % 13,8k bestelako gauzarako.

Adin-tarte horretako biztanleen % 75,7 Internetera etxetik konektatzen dira; % 67,8 ikastetxetik; % 23,2 lagun edo senideen etxetik; % 18,7 zentro publikoetatik; % 7,2 ziberkafe eta antzekoetatik; eta % 4,7 beste leku batzuetatik.

10 eta 14 urte bitarteko biztanleek Internet erabiltzen dute lehenik eta behin eskolako lanak egiteko (% 92,0); bigarrenik, aisiarako, musika entzuteko edo jokoetan aritzeko

(% 67,6); eta azkenik, bestelako gauzetarako (% 16,1).

Datuak sexuaren arabera aztertuz gero, agerikoa da 10etik 14 urtera bitarteko neska gehiagok erabiltzen dituztela bai ordenagailua, bai Internet. Gauza bera gertatzen da sakelako telefonoa daukautenekin: neska gehiago dira mutilak baino.

Informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzen dituzten 10 eta 14 urte bitarteko umeak, sexuaren arabera. Portzentajeak. EAE. 2006			
	Azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili duten umeak	Azken 3 hilabeteetan internet erabili duten umeak	Sakelako telefonoa daukaten umeak
2006 (1. aldia)	81,9	72,5	65,5
Gizonezkoak	79,1	65,6	60,1
Emakumezkoak	84,8	79,9	71,3

Iturria: INE. Etxeetako Informazio eta Komunikazio Teknologien Ekipamendu eta Erabilerari buruzko inkesta

100.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi diren umeek hein handiagoan darabilte ordenagailua hiru lurraldeetako hiriburuetan eta 100.000 biztanletik gorako herrietan bizi direnek baino. Gauza bera gertatzen da Interneten erabilerarekin, hau da, herri txikietakoez gehiago erabiltzen dute 100.000 biztanletik gorako herrietakoek eta hiriburuetako umeek baino. 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko herrietako umeengan, ordea, handiagoa da sakelako telefonoa daukaten umeen proportzioa (% 83,5).

IKTen erabilera bizikide kopuruaren arabera aztertzen badugu, ordenagailua eta Internet gehien erabiltzen duten umeak 3 eta 4 kideko etxeetakoak dira. Alabaina, 2 kideko etxeetako 10 eta 14 urte bitartekoek daukate, gehienbat, sakelako telefonoa (% 100ek).

Informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzen dituzten 10 eta 14 urte bitarteko umeak, habitataren eta bizikide kopuruaren arabera. Portzentajeak. EAE, 2006

	Azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili duten umeak	Azken 3 hilabeteetan internet erabili duten umeak	Sakelako telefonoa daukaten umeak
2006 (1. aldia)	81,9	72,5	65,5
Habitat			
100.000 biztanletik gorako udalerriak eta probintziako hiriburuak	70,6	58,2	56,9
50.000 eta 100.000 biztanle arteko udalerriak	95,7	87,0	73,1
20.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerriak	96,2	80,3	63,6
10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerriak	78,8	74,2	83,5
10.000 biztanletik beherako udalerriak	80,5	78,1	52,9
Bizikide kopurua			
Bizikide 1eko etxebizitzak	-	-	-
2 bizikideko etxebizitzak	55,3	55,3	100
3 bizikideko etxebizitzak	88,1	76,6	63,0
4 bizikideko etxebizitzak	84,9	73,3	68,7
5 bizikide edo gehiagoko etxebizitzak	73,0	69,7	55,4

Iturria: INE. Etxeetako Informazio eta Komunikazio Teknologien Ekipamendu eta Erabilerari buruzko inkesta

IKTen erabilera 16 eta 34 urteko gazteengan egindako ikerketaren arabera, adin-tarte horretako gazteenek -16 eta 24 urte bitartekoek- gehiago erabiltzen dituzte ordenagailua, Internet eta sakelako telefonoa. 25 eta 34 urte bitartekoek, ordea, sarriago darabilte Internet bidezko erosketak.

Datuak sexuka xehekatuz gero, ohar gaitezke 16 eta 24 urte bitarteko neskek ordenagailua, Internet, Internet bidezko erosketak zerbitzuak eta sakelako telefonoak hein handiagoan erabiltzen dituztela adin-tarte horretako mutilek baino. 25 eta 34 urte bitartekoen artean alderantzizkoa gertatzen da: mutilek horiek guztiak adin-tarte bereko neskek baino gehiago erabiltzen dituzte.

**16 eta 34 urte bitarteko biztanleak eta informazio eta komunikazio teknologien erabilera.
Portzentajeak. EAE. 2006 (1. seihilekoa)**

	16-24			25-34		
	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.
Azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili dutenak	82,8	82,2	83,4	80,4	84,9	75,6
Azken 3 hilabeteetan Internet erabili dutenak	81,2	79,1	83,4	74,8	80,2	69,1
Azken 3 hilabeteetan Internet gutxienez astean behin erabili dutenak	74,6	70,2	79,1	62,4	67,4	57,2
Azken 3 hilabeteetan Internet bidez erosketaren bat egin dutenak	13,8	11,9	15,7	25,1	27,6	22,4
Sakelako telefonoa erabili dutenak	98,6	97,2	100,0	97,5	99,1	95,8

Iturria: INE. Etxeetako Informazio eta Komunikazio Teknologien Ekipamendu eta Erabilerari buruzko inkesta

Giz. (Gizonezkoak), Emak. (Emakumezkoak)

Erlazionaturiko datu taulak:

[1. taula \(pdf, 19 kb\)](#)

[2. taula \(pdf, 19 kb\)](#)

[3. taula \(pdf, 20 kb\)](#)

[4. taula \(pdf, 19 kb\)](#)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal behatokiaren estatistikak](#)